

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1680

1017/2022 EBAZPENA, martxoaren 30ekoa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez Arabako Diagnostiko Biologikoko Kudeaketa Klinikoko Unitateburu lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia egiten den.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 16. artikulua jasotzen du zerbitzu sanitarioetako erakundeek arian-arian moldatuko dituztela euren zerbitzuen eta asistentzia-unitateen kudeaketa, zuzendaritza-eginkizun kliniko eta kudeatzaileak hobeto uztartzeko.

Helburu horren ildotik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2019ko uztailaren 23ko Erabakiaren bidez honako hauek arautu zituen: kudeaketa klinikoko unitateen eraketa, egitura eta funtzionamendua, kudeaketa klinikoko kontratuak, erreferentziako unitateak eta kudeaketa klinikoko erabakiak.

Erabakia hartu zenetik izandako esperientzia kontuan hartuta, komeni da zenbait aldaera sar-tzea, batez ere bi erakunderen edo gehiagoren baliabideak biltzen dituzten kudeaketa-unitateen kasuan. Egoera horietan, ondorengo antolaketa-aldaketaren garrantzia aintzat hartuta, komeni da eraketa-erabakia Administrazio Kontseiluaren erabakiak hartzeko esparruan kokatzea, era-kunde sanitario integratuak sortzeaz edota haien aldatzeaz arduratzen den erakundea baita, eta bildutako erakunde zuzendaritza- eta kudeaketa-organoen izena eta eginkizunak egokitzea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoaren erakunde sanitario integratuari buruzko uztailaren 3ko 100/2018 Dekretuaren azken xedapenetatik hirugarrenaren arabera.

Ildo horretan, 2019ko uztailaren 23ko Erabakiaren 2.3 artikulua honako hau ezartzen du: «Kudeaketa klinikoko unitateek haien edo beste zerbitzu-erakunde batzuen zerbitzu edo unitate osoak har ditzakete barnean. Unitate edo zerbitzu jakin bati atxikitako baliabideak ere barne har ditzakete, unitate edo zerbitzu osoa barne hartu gabe».

Bestalde, 3.1 artikuluko bigarren paragrafoan adierazten da zerbitzu-erakunde bati baino gehiagori lotutako kudeaketa klinikoko unitateak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Admi-nistrazio Kontseiluaren erabakiaren bidez eratuko direla, eragindako zerbitzu-erakundeetako zuzendari-kudeatzailearen hala proposatu, eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiak bideratuta.

Halaber, erakunde baten edo gehiagoren unitateak eta/edo zerbitzuak batzen dituzten kudeaketa klinikoko unitateak sortuta, komeni da koordinazio-batzorde bat sortzea, zuzendaritza-gerentziek, erakunde sanitarioen zuzendaritza asistentzialek eta unitateburuak osatua, bere barnean koordi-nazioa eraginkorragoa izan dadin.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2021eko urriaren 28ko Era-bakiaren bidez, Arabako Diagnostiko Biologikoko Kudeaketa Klinikoko Unitatea eratzea onartu zen. Unitate horri Administrazio Kontseiluaren 2019ko uztailaren 23ko Erabakian araututako egi-tura- eta funtzionamendu-arauak aplikatuko zaizkio.

Arabako Diagnostiko Biologikoko Kudeaketa Klinikoko Unitatearen egiturak sareko laborategi-eredu bati erantzuten dio, eta aliantza estrategiko edo kudeaketa-proiektu partekatu gisa definitzen da, pertsonari arreta emateko izaera korporatiboa duena, arreta integral, integratu, pertsonalizatu eta koordinatura bideratutako diziplina anitzeko taldeen bidez, eta parte hartzen duten baliabide eta erakundeen lankidetzaz baliatuz, haien funtzionamendu integratua errazteko.

Kudeaketa Klinikoko Unitate horren xedea da Arabako Erakunde Sanitario Integratuan, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan eta Arabako Errioxako Erakunde Sanitario Integratuan diagnostiko biologikoaren alorrean dauden beharrei erantzutea, praktika kliniko integratuaren ereduaren arabera. Unitatearen jarduerak autonomia-, eraginkortasun-, efizientzia- eta kalitate-printsipioen arabera arautuko dira. Zerbitzuak nodo hauen bidez eskaintzen ditu: Erreferentziazko laborategi zentral bat Arabako Erakunde Sanitario Integratuan; bi larrialdi-laborategi Arabako Unibertsitate Ospitaleko Txagorritxu eta Santiago egoitzetan, Arabako Erakunde Sanitario Integratuan; ospitale-erantzuneko laborategi bat Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan; eta POCT (Point of care testing) bat Arabako Errioxako Erakunde Sanitario Integratuko Lezako Ospitalean.

Zerbitzu-erakunde bati baino gehiagori lotutako kudeaketa klinikoko unitateetarako, Osakidetza Administrazio Kontseiluaren 2019ko uztailaren 23ko Erabakiaren 6. artikulua arabera, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko zuzendari nagusiak izendatuko du ardura-duna, izendapen askeko prozeduraren bidez, lanpostuaren profilaren eta dagokion unitatearen arabera bete beharko diren kompetentziak eta trebetasunak zehaztuko dituen deialdi publikoa egin ostean.

Azaldutakoagatik, Arabako Diagnostiko Biologikoko Kudeaketa Klinikoko Unitateburu lanpostua bete behar da, Arabako, Debagoieneko eta Arabako Errioxako erakunde sanitario integratuek diagnostiko biologikoaren alorrean dituzten beharrei erantzuteko. Hori dela eta, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiruugarren arau komunean, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezartzen denaren arabera, lanpostu hori izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, honako oinarri hauen arabera

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetako langile finkoa izatea (estatutupekoa, funtzionarioa edo lan-legepeko kontrataduna) eta lanpostua jabetzan edukitzea A1 lanbide-taldean.

b) Medikuntzako, Farmaziako, Biologiako, Kimikako edo Biokimikako Lizentzia edukitzea.

c) Gutxienez 4 urteko lan-esperientzia Analisi Klinikoetako, Biokimika Klinikoko, Immunologiako, Mikrobiologiako eta Parasitologiako edo Hematologiako eta Hemoterapiako espezialitatean.

d) Hizkuntza-eskakizuna. 2. hizkuntza-eskakizuna, derrigortasun-datarik gabe.

e) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren eta Osakidetzako Euskara Planaren gainerako betebeharrak betetzea.

2022ko apirilaren 19a, asteartea

Kudeaketa Klinikoko Unitatearen Buruzagitza, organikoki eta funtzionalki, Arabako ESlaren Zuzendaritzaren mende egongo da, eta Buruzagitza horren berezko eginkizunen ardura zuzena izango du, besteak beste:

- Unitatearen plan estrategikoa edo kudeaketa-planak koordinatu eta kudeatzea.
- Kudeaketa-kontratua Arabako, Debagoieneko eta Arabako Errioxako Erakunde Sanitario Integratuetako zuzendaritzekin negoziatzea.
- Kudeaketa Klinikoko Unitateko kudeaketa-taldea zuzentzea.
- Kudeaketa Klinikoko Unitatearen jarduera asistentziala zuzentzea.
- Ospitaleko gainerako unitateekiko harremanak koordinatzea, bai eta Unitatearen estrategia behar bezala garatzeko behar diren ospitalez kanpoko baliabideekiko harremanak ere.
- Unitateari atxikitako pertsonak planifikatu eta antolatzea.
- Esleitutako aurrekontua eta unitateari esleitutako beste baliabide fisiko batzuk kudeatzea, Zuzendaritzarekin adostutako kudeaketa kontratu edo dokumentuetan jasotako baldintzen arabera.
- Unitateko planetan jasotako prestakuntza- eta irakaskuntza-jarduerak zuzentzea.
- Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Diagnostiko Biologikoko Sareko Zuzendaritza Batzordeko kide izatea, eta haren funtzionamenduari lotutako akordioak eta konpromisoak hartzea.

2.– Aintzat hartuko diren merezimenduak.

- a) Asistentziaren kudeaketan prestakuntza izatea.
- b) Taldeen kudeaketan prestakuntza izatea.
- c) Informazio-sistema klinikoan alorrean eta kudeaketa sanitariorako adierazle asistentzialen analisi eta ebaluazioaren alorrean prestakuntza eta esperientzia izatea.
- d) Kudeaketan esperientzia izatea.
- e) Unitatearen kudeaketari buruzko memoria-proiektua.

Hautagai bakoitzarekin elkarrizketa pertsonala eskatu ahal izango da, eskatutako lanposturako egokia den ebaluatzeko.

Lanpostu hau betetzeko interesgarria izan daitekeen eta balioa erants dezakeen edozein merezimendu aurkeztu ahalko da.

3.– Euskararen ezagutza.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.

4.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan aurkeztu beharko dituzte eskabideak (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz). Horretarako, 15 egun balioduneko epea izango dute, ebazpen hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Aurkeztu ahal izango dira, halaber, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusira bidali behar dute eskabidea (Araba kalea 45, 01006 Vitoria-Gasteiz), beren datu pertsonal guztiekin eta curriculum vitae dokumentatuarekin batera.

Curriculum Vitaeko dokumentazioa honelakoa izan behar da:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, lan-kontratu finkodun langilea dela egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Baloratu beharreko merezimendu guztien fotokopia konpultsatua.
- e) Arabako Diagnostiko Biologikoko Unitate Klinikoaren kudeaketari buruzko memoria-proiektua.

CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

5.– Balorazio-batzordea.

Batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak baloratzeko, eta izangaiei horren berri emango zaie.

Batzordeak, eskabideak baloratu ondoren, eginbide osagarriak gauzatzea erabaki dezake, eta izangaiei horren berri emango die.

Izangaien balorazioa egindakoan, eta berau kontuan hartuta, dagokion izendapena egiteko proposamena aurkeztuko da. Lanpostua hutsik uztea proposa dezake epaimahaiak, betiere aurrez txosten arrazoitua eginez, baldin eta izangaiek betetzen ez badituzte bete beharreko baldintzak.

Akta egingo da Batzordea biltzen den bakoitzean. Bertan, aurkeztutako izangaiak eta gauzatutako eginbide osagarriak (halakorik balego) zerrendatuko dira, eta lanpostua euretako bati esleitzeko edo deialdia bete gabe uzteko kontuan hartutako arrazoiak emango.

6.– Hautaketa-prozedura.

Ezin izango dira baloratu, inolaz ere, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunerako eskuratu ez diren merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta egiaztatu ez direnak ere.

7.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpena.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bidez emango zaio amaiera honen bidez hasitako prozedurari (lanpostua esleitzea edo hutsik uztea), eta ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-zako intranetean eta webgune korporatiboan argitaratuko da.

Ebazpen horrek ondorioak izango ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean.

8.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen

2022ko apirilaren 19a, astearta

hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko martxoaren 30a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.